

# URKIJO TA OLANO'tar JON ERRAMUN



Miguel Angel Astiz

Eugenio Lopez

Jesus Oleaga

Juan R. Urquijo

Leopoldo Zugaza

Jose Antonio Montiano

### Bizkaitarra ta ikaslea

Urkijo ta Olano'tar Jon Erramun Begoña'n jaio zan. Begoña Bilbao'gaz bat egin bako eleizaldea zanean. Beraz, Foruak ebazanean. Eta bere bizkaitartasun sakona eta Euskalerrriaren maitasuna an beragatatu ebazan, bere zendiaren barruan, oitura jator on eben eta.

Deustu'n egin ebazan Legeetako baimendun izateko ikasketak eta Merkataritzarako Goi-Maillako Eskolara be joan zan. Argitalpen eta irarizko lanen arloaz arduratu zan. Bere egiteko guztien gaiñertik Urkijo'k euskal kulturearen aide egin eban lana azpimarratu behar da. Bibliografiatzko azterpen zeatzaren bitartez ikerketa baliagarriak egin ebazan, itzalezko gaitasuna alortuz.

### Euskalerrriko adiskideen alkartean

Euskalerrriko adiskideen alkarteak urteetan zear bere lendakari izan zanari omenaldia egin gura dau-tso.

Garrantzi aundiko urte bitan, 1975/1977, alkartearen Zuzendari izan zan. Aldi-une on erdibidezko garrai korapillotsua izan zan.

Laterri maillan bere arlokoen artean osperik geien dauan eta zarrena dan erakundea berbiztu eta indartzeko egin eban lan kementsu ta gogoz.

Omen on egiteko argitaratu da "Textos" idazpuru-a daroan liburua.

### Omenezko liburuaren gaiak

Mota ezbaridinhetako lanak eta gaiak aukeratu dira liburu on osotzeko, baiña lan guztien barrenean argi ikusten da lurrari eta jenteari begira berak dauan maitasuna eta euskerearen geroko bizitzeari buruzko ardurea.

1990'ean irarkolatik urtendako liburu onek, 317 orrialdetan lan irakurgarri asko dakaz eta irudiakaz ondo apainduta.

### Euskerazaleak Alkartean

Ez doguz aitzu bear berak egindako beste lan garrantzitsu batzuk.

Euskerazaleak Euskerea erabiltea indartzeko Alkartea sortu zanean, an egoan Jon Erramun Urkijo sortzailleen artean. Sera izan zan aldi bateko lendakari be, arlo oneitarako ezelako laguntzarik artzen ez zan aldi aretan.

Euskerazaleak Alkarteak itzaltasunik aundienaz eta maitasunik beroenaz gogoratzen dau Urkijo'tar Jon Erramun.

"TEXTOS" Liburutik artuta Olazar'tar Martin'ek eratua.